# Beste Iragarpen Ofizial Batzuk

## INDUSTRI, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

IRAGARPENA, Industriako Bizkaiko lurralde ordezkariarena, Sestaon instalatu behar den aidetikako eta 220 KVko elektrabide bat jendaurrean jartzeari buruzkoa. 2968

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

IRAGARPENA, Amezketako 19 eremuaren Plan Partzialaren espedienteari dagokionez, Diputatuen Kontseiluak hartutako erabakiari buruzkoa. 2969

IRAGARPENA, Hernaniko SUE-28.2 Sektoreko Plan Partzialaren espedienteari dagokionez, 1991ko urriaren 22ko Diputatuen Kontseiluak hartutako erabakiari buruzkoa. 2970

## DURANGOKO UDALA

IRAGARPENA, Alde Zaharra berregokitzeko planaren hasierako onarpenari dagokiona. 2971

## UBIDEKO UDALA

IRAGARPENA, UAU 112 eta 114 hirigintza ekintzapideetako urbanizazio proiektuari hasierako onarpena emateari buruzkoa. 2972

## HERNANIKO UDALA

IRAGARPENA, Hernaniko herrigune historikoaren birgaikuntza osoko plan bereziaren hasierako onarpenari buruz. 2973

# Otros Anuncios Oficiales

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, AGRICULTURA Y PESCA

ANUNCIO del Delegado Territorial de Industria en Bizkaia, por el que se somete a información pública una línea eléctrica aérea a 220 KV en Sestao. 2968

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

ANUNCIO relativo al acuerdo adoptado por el Consejo de Diputados, sobre el expediente de Plan Parcial de la Zona 19 de Amezketa. 2969

ANUNCIO relativo a Acuerdo adoptado por el Consejo de Diputados, sobre el expediente de Plan Parcial del Sector SUE-28.2 de Hernani. 2970

## AYUNTAMIENTO DE DURANGO

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial del Plan de Rehabilitación del Casco Histórico. 2971

## AYUNTAMIENTO DE UBIDE

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial del proyecto de urbanización de las unidades de actuación UAU 112 y 114. 2972

## AYUNTAMIENTO DE HERNANI

ANUNCIO referente a la aprobación inicial del Plan Especial de rehabilitación integral del Casco Histórico de Hernani. 2973

# Xedapen Orokorrak

## MERKATARITZA, KONTSUMO ETA TURISMO SAILA

### 1204

177/1995 DEKRETUA, otsailaren 28koa, Euskal Autonomi Elkarteko Merkataritza Batzorde Aholkularia sortzen duena.

Autonomi Estatutuaren 10.27 atalaren arabera, Euskal Autonomi Elkartearen esku daude barne merkataritzari buruzko eskumen guztiak, prezioen politika orokorraren, Estatuaren eremuan ondareak batetik bestera erabiltzeko eskubidearen edota lehiakortasunaren aldeko legediaren kontra ez doazenean. Kontutan hartu beharrekoak dira, halaber, Konstituzio Epaitegiak gai honetaz egin dituen zehaztapenak.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE COMERCIO, CONSUMO Y TURISMO

### 1204

DECRETO 177/1995, de 28 de febrero, por el que se crea la Comisión Consultiva de Comercio del País Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco goza, de conformidad con lo dispuesto en el art. 10.27 del Estatuto de Autonomía, de la competencia exclusiva en materia de comercio interior sin perjuicio de la política general de precios, la libre circulación de bienes en el Territorio del Estado y de la legislación sobre defensa de la competencia. Todo ello con las matizaciones que en este ámbito están siendo formuladas por diferentes pronunciamientos del Tribunal Constitucional.

Merkataritza Iharduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legeak zioen adierazpenean dioenez, legean bertan jasotzen da merkataritza ihardueraz arduratuko den kide anitzeko organo bat sortu beharra, gizarte eta ekonomi eragileen arteko eztabaidaren bitartez gai horretan politika irekiago eta adostuago bat garatu ahal izateko.

Horrekin bat, lege horren 51. atalean Merkataritza Batzorde Aholkularia sortzea aurrikusten da eta, bertan, horren egitekoak, osaera eta iharduna arauz zehaztuko direla esaten da.

Araudi hori finkatzeko, 7/1994 Legeak ematen duen gaitasuna bitarteko, Merkataritza Batzorde Aholkularia sortzen da dekretu honen bitartez, merkataritzak ekonomiaren garapenean duen garrantzia kontutan hartuta. Erakunde publiko zein pribatuek osatuko dute batzorde hori eta bere eginkizuna Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailari laguntzea izango da, Euskal Autonomi Elkarteko merkataritzaren egitura sustatzeko eta hobetzeko egoki ikusten dituen ekimen eta proposamenak eginez.

Ondorioz, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko otsailaren 28an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren hauxe:

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Dekretu honen helburua Euskal Autonomi Elkarteko Merkataritza Batzorde Aholkularia sortzea da, merkataritza gaietan aholkuak eman ditzan.

*2. atala.*– Euskal Autonomi Elkarteko Merkataritza Batzorde Aholkularia Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailaren barruan egongo da.

*3. atala.*– Euskal Autonomi Elkarteko Merkataritza Batzorde Aholkulariaren egitekoak hauek dira:

a) Euskal Autonomi Elkarteko merkataritza egiturarekin zerikusia duten ekimenak aurkeztea.

b) Salerosgaien banaketari buruzko azterketa eta ikerketak egitea eta iritziak ematea.

c) Merkataritza Iharduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legea garatzeko xedapen-proiektuei buruzko iritzia ematea.

d) Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailak eskatzen dionean bere iritzia ematea.

*4. atala.*–

1.– Hona hemen Euskal Autonomi Elkarteko Merkataritza Batzorde Aholkularia osatuko duten kideak:

– Eusko Jaurlaritzako Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburua, lehendakari lanetan.

– Eusko Jaurlaritzako Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburuordea, lehendakariorde lanetan.

– Eusko Jaurlaritzako Merkataritzako Administrazio eta Politikarako zuzendaria.

La Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial, manifiesta en su Exposición de Motivos, que esta norma introduce un órgano de participación colegiada sobre la actividad comercial, en el que por la vía del debate de los agentes sociales y económicos pueda desarrollarse una política más abierta y consensuada en la materia.

De acuerdo con ello la mencionada disposición prevé en su art. 51 la creación de la Comisión Consultiva de Comercio, estableciendo que sus funciones, composición y normas de funcionamiento serán objeto de desarrollo reglamentario.

En orden a esta regulación y dentro del marco habilitante establecido en la Ley 7/1994, la presente norma, teniendo en cuenta la trascendencia del sector en el desarrollo económico, instaura un órgano que con la participación de entidades tanto públicas como privadas que inciden en el sector comercial actúe asesorando al Departamento de Comercio, Consumo y Turismo en las medidas que puedan adoptarse, formulando iniciativas y propuestas tendentes a la promoción y mejora de la estructura comercial de la Comunidad Autónoma.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Comercio, Consumo y Turismo, previa aprobación del Lehendakari y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 28 de febrero de 1995.

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Es objeto del presente Decreto la creación de la Comisión Consultiva de Comercio del País Vasco como órgano asesor en materia de comercio.

*Artículo 2.*– La Comisión Consultiva de Comercio del País Vasco quedará adscrita al Departamento de Comercio, Consumo y Turismo.

*Artículo 3.*– Las funciones de la Comisión Consultiva de Comercio del País Vasco son las siguientes:

a) Formular y proponer iniciativas relacionadas con la estructura comercial en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Promover la realización de estudios, dictámenes e investigaciones del sector de la distribución comercial.

c) Informar sobre proyectos de disposiciones de desarrollo reglamentario de la Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la Actividad Comercial.

d) Cualesquiera otra de naturaleza consultiva que le sean propuestas por el Departamento de Comercio, Consumo y Turismo.

*Artículo 4.*–

1.– La Comisión Consultiva de Comercio del País Vasco estará compuesta por los siguientes miembros:

– La Consejera de Comercio, Consumo y Turismo del Gobierno Vasco que actuará como Presidenta.

– La Viceconsejera de Comercio y Consumo del Gobierno Vasco que actuará como Vicepresidenta.

– El Director de Administración y Política Comercial del Gobierno Vasco.

– Eusko Jaurlaritzako Kontsumo zuzendaria.

– Lurralde historikoetako foru aldundietako ordezkari bat, beren artean aukeratutakoa.

– Euskal Udalen Elkarteko (EUDEL) hiru ordezkari.

– Merkatarien Elkarteetako ordezkari bat Lurralde Historiko bakoitzeko, Euskal Autonomi Elkarteko Merkataritza Ganbara Ofizialek izendatuak.

– Euskal Autonomi Elkarteko banaketa enpresa handien ordezkari bat, Euskal Autonomi Elkarteko Merkataritza Ganbara Ofizialek izendatua.

– Euskal Autonomi Elkarteko Merkataritza Ganbara Ofizialen ordezkari bat.

– Euskal Autonomi Elkartean ordezkari gehien duten sindikatuetako kide bat.

– Euskal Enpresarien Elkarteko (CONFEBASK) ordezkari bat.

– Bazkide gehien duten kontsumitzaile-elkarte zabalduenetako edo horien federazioetako bi ordezkari. Derrigorrezkoa izango da dagokien erroldan egotea.

2.– Batzordeko idazkaria lehendakariak izendatuko du Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Saileko funtzionarien artean eta ahotsa izango du, baina ez botorik.

*5. atala.–*

1.– Osoko bilkura batzordekide guztiek osatzen dute eta lehendakaria izango da horren buru.

2.– Hauek dira osoko bilkuraren egitekoak:

a) Dekretu honetan batzordearen iharduerarako ezartzen diren arauak osatzea.

b) Behar diren lantalde eta ponentzia teknikoak sortu eta zehaztea eta aztertu nahi den gaian aditu eta tekniko den jendea bereganatzea.

c) Batzordeari aurkeztutako txosten, proiektu eta proposamenak aztertzea eta, egoki ikusiz gero, onartzea.

d) Egintzei buruzko urteko txostena onartzea.

e) Oro har, aurreko idazatietan zehaztutako egitekoekin zerikusirik dutenak.

3.– Lehendakariak egingo du Batzordearen osoko bilkurarako deia. Bilkura hori sei hilabetean behin egingo da, gutxienez, edo lehendakariak zein kideen gehiengo osoak hala eskatzen duenean.

Deialdiarekin batera bilerako gai zerrenda ere bidaliko da.

*6. atala.–* Euskal Autonomi Elkarteko Merkataritza Batzorde Aholkulariko kideek indarrean dauden arauen arabera dagozkien kalteordain eta sariak jasoko dituzte, egindako zerbitzuengatik.

– El Director de Consumo del Gobierno Vasco.

– Un vocal en representación de las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos, designado de común acuerdo por las mismas.

– Tres vocales en representación de la Asociación de Municipios Vascos (EUDEL).

– Un vocal en representación de las Asociaciones de Comerciantes por cada Territorio Histórico, designado por las Cámaras Oficiales de Comercio del País Vasco.

– Un vocal en representación de las Grandes Empresas de Distribución radicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco designado por las Cámaras Oficiales de Comercio del País Vasco.

– Un vocal en representación de las Cámaras Oficiales de Comercio del País Vasco.

– Un vocal en representación de los Sindicatos más representativos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

– Un vocal en representación de la Confederación de Empresarios Vascos (CONFEBASK).

– Dos vocales en representación de las Asociaciones de Consumidores o de sus Federaciones debidamente censadas con mayor número de asociados e implantación territorial.

2.– El Secretario de la Comisión, que actuará con voz pero sin voto, será designado por el Presidente entre funcionarios adscritos al Departamento de Comercio, Consumo y Turismo.

*Artículo 5.–*

1.– El Pleno, integrado por todos los miembros de la Comisión, es presidido por el Presidente.

2.– Corresponde, en todo caso, al Pleno las siguientes atribuciones:

a) Complementar las normas de funcionamiento de la Comisión que se establecen en el presente Decreto.

b) Constituir y definir las comisiones de trabajo y ponencias técnicas que sean necesarias, determinando, en su caso, la incorporación a las mismas de Técnicos y expertos en la materia objeto de estudio.

c) Estudiar y, en su caso, aprobar los proyectos, propuestas e informes elevados a la Comisión para su pronunciamiento.

d) Aprobar la memoria anual de actividades.

e) Y, en general, desarrollar cuantas otras funciones le sean encomendadas, en relación con las enumeradas en los apartados anteriores.

3.– El Pleno de la Comisión se reunirá previa convocatoria del Presidente al menos una vez cada semestre y siempre que aquél lo estime conveniente o lo solicite al menos la mayoría absoluta de sus miembros.

A la convocatoria de las reuniones se acompañará el orden del día.

*Artículo 6.–* Los miembros de la Comisión Consultiva de Comercio del País Vasco podrán percibir las dietas e indemnizaciones que por razón de servicio les correspondan de acuerdo con la normativa vigente.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Dekretu honetan arautzen ez direnetan, Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa beteko du batzordeak iharduerari dagokionez.

*Bigarrena.–* Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko otsailak 28.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburua,
ROSA DÍEZ GONZÁLEZ.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* En lo no regulado en el presente Decreto, el funcionamiento de la Comisión se ajustará a lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de febrero de 1995.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

La Consejera de Comercio, Consumo y Turismo,
ROSA DÍEZ GONZÁLEZ.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### EUSKO LEGEBILTZARRA

**1205**

AKORDIOA, Eusko Legebiltzarrak osoko bilkurak hartutakoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideak izendatzeko dena.

Nik, Itziar Alba Orbegozo, Eusko Legebiltzarreko Mahaiko Lehen Idazkaria naizenez, hauxe

ZIURTATZEN DUT:

Eusko Legebiltzarrak, mila bederatziehun eta laurogeita hamabosteko martxoaren hamarrean balio osoz egindako osoko bilkuran, «Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri Kontuen Euskal Epaitegia»ri buruzko otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 15. ataleko 2. apartatuan xedatzen denaren arabera, eta Eusko Alkartasuna, Izquierda Unida/Ezker Batua/Berdeak eta Eusko Abertzaleak/Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak eta Euskal Talde Popularra legebiltzar-taldeek, guzti horiek batera, Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren aurrean aurkeztutako hautagai-zerrendei dagokienez, honako hauek izendatu zituen Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kide:

Juan Luis Laskurain Argarate jauna
M.ª Asunción Macho Berroya andrea
Jesús Álvarez Galdós jauna
Juan Carlos Gutiérrez Pinedo jauna
Begoña López Errazti andrea

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### PARLAMENTO VASCO

**1205**

ACUERDO del Pleno del Parlamento Vasco por el que se designan los miembros del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

Itziar Alba Orbegozo, Secretaria Primera de la Mesa del Parlamento Vasco,

CERTIFICO:

Que el Pleno del Parlamento Vasco, en sesión válidamente celebrada el día diez de marzo de mil novecientos noventa y cinco, de conformidad con lo establecido en el artículo 15, apartado 2, de la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del «Herri-Kontuen Euskal Epaitegia/Tribunal Vasco de Cuentas Públicas», y en relación con las candidaturas presentadas ante la Mesa del Parlamento Vasco por los Grupos Parlamentarios Eusko Alkartasuna, Izquierda Unida/Ezker Batua/Berdeak y Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak y Popular Vasco-Euskal Talde Popularra, conjuntamente, designó miembros del Herri-Kontuen Euskal Epaitegia/Tribunal Vasco de Cuentas Públicas a:

D. Juan Luis Laskurain Argarate
D.ª M.ª Asunción Macho Berroya
D. Jesús Álvarez Galdós
D. Juan Carlos Gutiérrez Pinedo
D.ª Begoña López Errazti